2022IKIE0016

PLEGU TEKNIKOAK

KONTRATAZIOA: PROZEDURA IREKIA

IZENBURUA: ENERGIA ALORREAN NAHIZ EKONOMIA ZIRKULARREAN, UROLA KOSTAKO ZERBITZU SEKTOREARI NAHIZ INDUSTRIARI LOTURIKO AZTERKETA ETA NEURRI ZEHATZEN AHOLKULARITZA ZERBITZUAZ GAIN, ENERGIA ETA KLIMA MAHAIEN SORRERA ETA DINAMIZAZIOA

✓ AURREKARIAK

Urola Kostako Udal Elkartea 1991an sortu zuten Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalek, eta harrezkero garatzen joan da. Urola Kostako Udal Elkartearen (UKUE) funtsezko eginkizunetako bat da eskualdeko garapen sozioekonomikoa eta bertako biztanleen ongizatea. MISIO horren gauzatzera bideratzen ditu bere ekimen guztiak, eta horrela dago jasota bere estatutuetako xedea jasotzen duen 5. artikuluan: "Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusia Udal Elkartea osatzen duten udalerrien garapena eta udalerri horietako biztanleen ongizatea lortzea da".

Xede horren baitan, Urola Kostako Udal Elkarteak 2021ean eskualdeko energia plana garatu zuen. Eskualdeko energia planean, 2022-2026 epealdirako ekimenen lehentasunak definitzeaz gain, energia alorrean, lortu nahi diren helburu zehatzak hauek dira:

a) Energia-aurrezpena sustatzea eta energiaren erabileran eraginkortasuna bultzatzea.
b) Energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna gutxitzeko.
c) Berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzea, besteak beste, aurrezte neurrien eta energia erabiltzeko efizientzia neurrien eta energia iturri berriztagarriak erabiltzearen ondorioz.
d) Energia gehiago aurrezteak eta behar dugun energia modu eraginkorrean erabiltzeak nahiz energia berriztagarriak erabiltzeak zer onura dakartzaten zabaltzea.
e) Eskualdeko herritarrei informazioa erabilgarri jartzea.
f) Eragile ezberdinen partaidetza errazteko asmoz, energiaren mahaia sortzea.
g) Sentsibilizazioa lantzea.

Hori horrela izanik, 2023an, eskualdeko energia eraginkortasuna eta berriztagarriak bultzatzeko honako zerbitzuak kontratatu nahi dira kontratazio prozedura honen bidez:

- **SORTA 1: ENERGIA ALORREAN NAHIZ EKONOMIA ZIRKULARREAN, ESKUALDEKO ZERBITZU SEKTOREARI NAHIZ INDUSTRIARI LOTURIKO AZTERKETA ETA NEURRI ZEHATZEN AHOLKULARITZA.**
- **SORTA 2: ENERGIA MAHAIEN SORRERA ETA DINAMIZAZIOA.**

✓ KONTRATUAREN XEDEA

SORTA 1: ENERGIA ALORREAN NAHIZ EKONOMIA ZIRKULARREAN, ESKUALDEKO ZERBITZU NAHIZ INDUSTRIA SEKTOREARI LOTURIKO AZTERKETA ETA NEURRI ZEHATZEN AHOLKULARITZA.

Kontratuaren helburua da, energia nahiz ekonomia zirkularraren alorrean, zerbitzu nahiz industria sektorearen beharrak antzematea eta eraginkortasuna hobetzeko bidelagun izatea.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Halaber, energia eta ekonomia zirkularraren arloan industria nahiz zerbitzu sektorialetako enpresei laguntza teknikoa eta aholkularitza ematea.

Helburu espezifikoak:

a) Enpresa ehunaren energia-aurrezpena sustatzea eta energiaren erabileran eraginkortasuna bultzatzea.
b) Enpresa ehunean energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna gutxitzeko.
c) Berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzea, besteak beste, aurrezte neurrien eta energia erabiltzeko efizientzia neurrien eta energia iturri berriztagarriak erabiltzearen ondorioz.
d) Enpresa ehunak energia gehiago aurrezteak eta behar dugun energia modu eraginkorrean erabiltzeak nahiz energia berriztagarriak erabiltzearen onuren hedapena.
e) Eskualdeko enpresentzat, eragileentzat nahiz herritarrentzat informazioa erabilgarri jartzea.
f) Enpresetan sentsibilizazioa lantzea.

SORTA 2: ENERGIA MAHAIEN SORRERA ETA DINAMIZAZIOA.

Egitasmoaren muina da energia eta klima mahaiak sortzea eta dinamizatzea, energia alorrean lortu nahi diren helburuen lorpena errazteko.

Helburu espezifikoak:

- 2022-2026 epealdirako zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko ekintzak zehaztea eta adostea.
- Eskualdeko udalek era bateratuan garatzea eskualdeko energia planean 2022-2026 epealdirako zehaztutako lehentasunak, energia alorrean lortu nahi diren helburu zehatzak eskuratzeko.
- Eskualdeko eragile desberdinen partehartzea.

Hori guztia, administrazio-klausula zehatzen agiriarekin, preskripzio teknikoekin eta Udal Elkarteko teknikarien jarraibideekin bat etorriz, eta baita kontratuaren esleipendun gertatzen den proposamenean adierazitakoarekin bat etorriz ere.

✓ KONTRATATZEKO ESPEZIALITATEAK

Helburuak lortzeko, egin beharreko lanak espezialitateen arabera landuko dira. Horren baitan, bi sorta hauetan banatuko dira:

- SORTA 1: ENERGIA ALORREAN NAHIZ EKONOMIA ZIRKULARREAN, ESKUALDEKO ZERBITZU SEKTOREARI NAHIZ INDUSTRIARI LOTURIKO AZTERKETA ETA NEURRI ZEHATZEN AHOLKULARITZA.
- SORTA 2: ENERGIA MAHAIEN SORRERA ETA DINAMIZAZIOA.

Sorta bakarrerako aparteko eskaintza bat aurkeztu daiteke, edota bi sortetarako eskaintza egin. Nolanahi ere, bi sorteetara aurkeztuz gero, sorta bakoitzerako eskaintza bat aurkeztu beharko da (teknikoa eta ekonomikoa).

✓ ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUA

Zehazki, hauek dira aurrera eramango diren egitekoak:

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

SORTA 1: ENERGIA ALORREAN NAHIZ EKONOMIA ZIRKULARREAN, ESKUALDEKO ZERBITZU SEKTOREARI NAHIZ INDUSTRIARI LOTURIKO AZTERKETA ETA NEURRI ZEHATZEN AHOLKULARITZA.

Ekintzaren deskribapena

2023an, zerbitzuen eta industriaren sektorea aztertu eta jorratu nahi dugu, energiaren eta ekonomia zirkularraren arloan hainbat ekimen gauzatuz aipatutako sektoreen lehiakortasuna areagotzeko.

Urola Kostako zerbitzu sektoreak 1482 establezimendu ditu. Gainera, 2021ean, besteak beste, hainbat ekimen egin ditugu merkataritza-sektorearen lehiakortasuna areagotzeko. Hori dela eta, urrats bat gehiago eman nahi dugu, zerbitzuen sektorean sakonduz; eta energiaren eta ekonomia zirkularraren eragina aztertu nahi dugu haien lehiakortasuna areagotzeko.

Era berean, Urola Kostako industria sektorearen azterketa egin nahi dugu. Urola Kostako industria-sektoreak 154 establezimendu ditu. Eskualdeko industria-sektorearen azterketa bat egin nahi dugu, industria-sektorearen energia-kudeaketaren eta ekonomia zirkularraren egoera ezagutzeko, aurrezkia, eraginkortasuna eta ekonomia zirkularra handitzeko ekimenak abian jartzeko. Adibidez, industrialdeetan bero-sareak sortzeko aukerak aztertzea; eta enpresek energiarekin lotutako kostuak murrizten laguntzeko bideak lantzea, eta ekonomia zirkularreko proiektuak eta enpresen arteko lankidetza-ekimen berriak sustatzea.

Azken finean, industriaren eta zerbitzuen sektorearen azterketaren bidez, Urola Kostako enpresen eta establezimenduen lehiakortasuna hobetu nahi dugu.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Proposatutako ekintzak

ZERBITZU SEKTOREA:

- Eskualdean jarduten duten zerbitzu sektoreko enpresen ezaugarriak aintzat hartuz, azpisektore bakoitzeko bat aukeratzea eta lagin horretan dauden enpresen egoeraren azterketa burutzea.
- Azterketa horren ondoren, energiaren kudeaketa jasangarrian aurrerapausoak ematea errazteko neurri-sorta bat zehaztea.
- Eskualdeko zerbitzu sektoreko enpresei euren negozioan erabiltzen duten energia kudeatzera zuzendutako formakuntza-programa ezberdinen berri ematea eta beharrezkoa denean, prestakuntza-programa bereziak prestatzea, enpresen beharretara egokituta. Hau da, zerbitzu sektoreari zuzenduriko prestakuntza nahiz sentsibilizazio saioak eskaintzea.
- Eskualdeko zerbitzu sektoreko enpresen lagin bati establezimenduen azterketa egitea eta banakako aholkularitza bideratzea.
- Eskualdeko zerbitzu sektoreko enpresen lagin bati (aldez aurretik energia berriztagarrien autokontsumorako edo kontsumo partekaturako proiektuetan parte hartzeko interesa agertu dutenak) bideragarritasun-azterketa eta ezarpenerako proposamena lantzea.

INDUSTRIA SEKTOREA:

- Eskualdean jarduten duten industria sektoreko enpresen ezaugarriak aintzat hartuz, lagin bat aukeratzea eta lagin horretan dauden enpresen egoeraren azterketa burutzea.
- Azterketa horren ondoren, energiaren kudeaketa jasangarrian aurrerapausoak ematea errazteko neurri-sorta bat zehaztea.
- Energia berriztagarri eta auto-hornikuntzarako baliabideen egoeraren azterketa burutu, energiaren kudeaketa jasangarrian aurrerapausoak ematea.
- Bero-soberakinak dituzten enpresak zeintzuk diren aztertzea (kokalekua, bero-soberakinaren zenbatekoa, gertu kokatuta dauden eta bero hori aprobetxatzeko beharra izan dezaketen enpresak antzeman, etab.).
- Ekonomia zirkularrean, esatera, bero soberakina izan ditzaketen enpresekin eta bero hori ekoizpenerako behar duten beste enpresen arteko sinergiak sortzeko aukerak aztertzea.
- Ekonomia zirkularreko jardunbide egokiak aditzera ematea.

Helburuen lorpenaren amaierako ebaluazioa egiteko irizpideak

- Azterketan parte hartutako industria nahiz zerbitzu establezimendu kopurua
- Neurri prebentiboak edo zuzentzaileak ezarri zaizkien parte hartzaile kopurua.
- Partehartzaileen balorazio inkesta.
- Banakako aholkularitza kopurua.
- Kontsumo partekatzeko proiektuetan parte hartutako establezimendu kopurua.
- Energia kudeaketan lagundu zaien enpresa kopurua.
- Identifikatu eta aditzera eman diren jardunbide egoki kopurua.

SORTA 2: ESKUALDEKO ENERGIA ETA KLIMA MAHAIEN SORRERA ETA DINAMIZAZIOA.
Ekintzaren deskribapena

Energia eta Klima mahaiak (publiko nahiz pribatua) dinamizatzeaz gain, Urola Kostako energia planaren jarraipena, mantenua eta berrikustea egingo da.

✓ **Mahaia/k antolatu.** Eskualde mailan bideratu(ko) diren energia mahai ezberdinen sorrera (aurrez eratuta ez baleude) eta sustapena. Aurrez egin beharreko deialdiaren prestaketa, dinamizazioa, informazioa jasotzea eta ondorengo akta egitea.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

- ✓ **Energia mahaia (mahai publikoa)**

Udal teknikari nahiz politikariez osatutako mahaia.

- Bi edo hiru hilabetetik behin elkartuko da.
- Mahaiaren gai zerrenda, akta eta dinamizazioa bideratuko dira.
- Mahaian eztabaidatutako/proposatutako gutxienez aukera baten azterketa egin ondoren, proposamena (bideragarritasun azterketa, eta horren emaitzetan oinarritutako ekintza proposamena) aurkeztuko zaio Udal Elkarteri.

- ✓ **Jasangarritasun energetikorako partaidetza batzordea (mahai publiko pribatua)**

Energia mahaiko partaideez gain, jarduera ekonomikoak zein bestelako eragileak barneratzen dituen mahaia (enpresak, ikastetxeak edo prestakuntza-zentroak, etab.). Mahai honetan, energia arloan Urola Kostatik landutako ekimenak aurkezteaz gain (urteko balantzea aurkeztea), etorkizuneko lan lerroak proposatu eta balioztatzeko izango litzateke, jarduera ekonomikoen beharrak eta beraiek dituzte kezkak jasotzeko.

- Urtean bi edo hirutan elkartuko da.
- Eragile publiko eta pribatuek osatutako mahaia izango da. Urola Kostako Udal Elkartea eragile modura azalduko da bertan. Lehiaketa honetan aurkezten den proposamenean, enpresa partaideen papera zein izango den erabaki eta hori egitearen arrazoiak eta helburuak zehaztuko ditu (goian zehaztu denarekin ere bat etorriz).
- Parte-hartzaile potentzialak identifikatzeko eta erakartzeko lana egin beharko da.
- Mahaian zehazten dena udal elkarteari pasako zaio, erabakitakoaren lanketa egin ondoren (bideragarritasuna, metodologia eta abar). Proposamenarekin batera, lanketa hori nola bideratuko litzatekeen zehaztu beharko da.
- Mahai honetan landutako aktak webgunean argitaratzeko eredua izango dute.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Aurreikusitako ekintzak

- Energia mahaiaren jarraipena. Energia nahiz kliman zehazten diren ekimenen jarraipena eta ekintzen lehentasunak zehaztea.
- Jasangarritasun energetikoaren inguruko gaien esparruan eskatutako gai eta proiektuei buruzko txostenak eta proposamenak egitea.
- Jasangarritasun energetikoaren esparru espezifikoan ekimen publikoen arteko koordinazioa sustatzea.
- Eskualdeko udalek eta Urola Kostako Udal Elkarte berak energiaren aurrezpenaren zein eraginkortasunaren arloan dituzten beharrak aintzat hartuz, interesekoak izan daitezkeen egitasmo partekatuak definitzea eta garatzea.
- Jasangarritasun energetikorako partaidetza batzordea (mahai publiko pribatua). Eskualdeko gizarte eta ekonomia-eragileez osatutako energia-mahaia sortzea.
- Jasangarritasun energetikorako partaidetza batzorde hau sortuz eskualdeko eragile ezberdinek Urola Kostako ekintza-planaren garapenean parte-hartze aktiboa izatea erraztea.

Helburuen lorpenaren amaierako ebaluazioa egiteko irizpideak

- Energia eta klima mahaien akta kopurua (mahai publikoa).
- Jasangarritasun energetikorako partaidetza batzordeko partaide kopurua
- Energia mahaiaren eta Jasangarritasun energetikorako partaidetza batzordearen bileran akta kopurua (mahai publiko pribatua)
- Energiari eta klimari lotuta garatu diren txosten edo proposamen kopurua.

✓ EPEAK ETA EGUTEGIA

Epea kontratua sinatzean hasiko da.

LOTE 1 :Kontratuaren exekuzio epea kontratazio hasi eta **2023ko azaroaren 1ean** amaituko da. Hau da, egiteko guztiak amaituta egon beharko dute beranduenez 2023ko azaroaren 1ean.

LOTE 2 :Kontratuaren exekuzio epea kontratazio hasi eta **2023ko azaroaren 1ean** amaituko da. Hau da, egiteko guztiak amaituta egon beharko dute beranduenez 2023ko azaroaren 1ean.

✓ ESKAINTZAREKIN AURKEZTU BEHAR DENA

Sorta bakarrerako aparteko eskaintza bat aurkeztu daiteke, edota bi sortetarako eskaintza egin. Nolanahi ere, azken kasu honetan sorta bakoitzerako aurkeztu beharko da eskaintza bana (eskaintza teknikoa eta ekonomikoa).

6.1. Eskaintza teknikoa:

Lehiatzaileek sorta bakoitzerako proposamen tekniko bat aurkeztu behar dute, zerbitzuaren objektu diren lanak antolatzeko eta egiteko era xehetasun osoz agertzen duena. Proposamen teknikoak azpi-atal hauetan zehazten diren edukiak izan behar ditu eta, horien arabera baloratuko dira:

- **Proiektuaren faseak, ekintzak, orduak eta espero diren emaitzak** (sakontasun maila, helburuekin bat etortzea eta espero diren emaitzak baloratuko dira)
  Proposamenak puntu hauek zehaztu behar ditu:

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

- Ekintzaren deskribapena.
- Ekintza bakoitzaren helburua.
- Zeregin eta ekintza zehatzak.
- Ekintza bakoitzean erabiliko diren bitarteko eta materialak.
- Erabiliko diren baliabideak.
- Fase bakoitzaren prozedura, noiz eta non egin, horiek gauzatzeko orduak, …

Atal honetan zehaztu beharko dira besteak beste egiteko bakoitzerako proposatzen den ekintza kopurua; eta horiek gauzatzeko beharreko ordu kopurua, egiteko bakoitzerako eta egitekoak barneratzen duen ekintza bakoitzeko.

- **Metodologia** (egokitasuna eta proposatutako euskarriak baloratuko dira)

Lehiatzaileek argi eta garbi adierazi behar dute proiektua gauzatzeko fase bakoitzerako erabiliko duten modua, betiere ezarritako helburuak lortzeko. Zehaztuko dira ekintza bakoitzean erabiliko diren tresna eta estrategiak.

- **Kronograma** (ekintza/esparru bakoitzaren egutegiaren egokitzapena baloratuko da egitasmo osoaren helburuekiko) Jarduteko egutegia. Bertan zehaztuko da jarduera horiek guztiak noiz bideratuko diren, jardunaldi bakoitzaren kronograma eta proiektuaren kronograma orokorra.

- **Giza baliabideak eta bitarteko materialak** (lantaldearen eta proiektuen esperientzia baloratuko da, egitasmoari ekar dakiokeen balio erantsia)

  - Enpresa esleipendunak: adieraziko da zer nolako eskarmentua duen kontratazio honen baitan garatu beharreko lanak gauzatzen edo/eta parte hartu duen antzeko lanetan.

  - Programan parte hartuko duten langileak: ekintza edo jarduera bakoitzean parte hartuko duten pertsonen profilak zehaztuko dira (CVak erantsiko dira) eta adieraziko da bakoitzak zer nolako esperientzia duen kontratazio honen baitan garatu beharreko lanetan edo/eta parte hartu duen antzeko lanetan.

- **Koordinazioa** (Urola Kostako Udal Elkartearekin edota ekimena burutzean lankide izango dituen erakunde/agenteekin proiektua koordinatzeko modua baloratuko da) Koordinaziorako beharrezko komunikazio eta bileren prozedura zehaztuko da, proiektuaren helburuen betetze-maila egiaztatzeko eta jarraipena egiteko.

- **Ideia berritzaileak** (egitasmoaren helburuen lorpenerako, aplikagarritasuna eta bere egokitasuna baloratuko da) Egitasmoa garatzeko berritzaileak izan daitezken dinamikak eta metodologiak aurkeztu ahal izango dira. Beti ere, proiektuari balio erantsia eman eta lortu nahi diren emaitzekin lotura dutenak..

- **Alderdi orokorrak** (baloratuko dira)
  - ✓ Hizkuntzen kudeaketa.
  - ✓ Berdintasuna eta genero ikuspegia.
  - ✓ Aurkezpenaren kalitatea

6.2. Eskaintza ekonomikoa:

Hurrengo atalean aurkezten diren irizpideak jaso beharko ditu.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

✓ **AURREKONTUA**

Jasotzen diren proposamen eta aurrekontuetan, eskaintzaren kalitate teknikoa eta aurkezten den aurrekontuari erreparatuko zaio, besteak beste. Aurkezten den orduko prezioa gehienez ere 69,29€ izango da (BEZ gabe) eta 83,84€ (BEZ barne).

1. SORTA: ENERGIA ALORREAN NAHIZ EKONOMIA ZIRKULARREAN, ZERBITZU SEKTOREARI NAHIZ INDUSTRIARI LOTURIKO AZTERKETA ETA NEURRI ZEHATZEN AHOLKULARITZA (gehienez, 23.966,94 € BEZ kanpo)
2. SORTA: ESKUALDEKO ENERGIA ETA KLIMA MAHAIEN SORRERA ETA DINAMIZAZIOA (gehienez, 8.607,06 € BEZ kanpo)

Aurrekontuan bereizita aurkeztu beharko dira: fase bakoitzeko orduak eta horien kostea, zenbatekoaren oinarria eta BEZa.

Ohar-garrantzitsua: egiten ez diren saioak eta orduak ez dira fakturatuko.

Aurrekontuan sartuta egongo dira, zerbitzua eskaintzeko beharrezko diren baliabide eta gastu guztiak, hala nola, parte-hartzaileei eman beharreko dokumentazioa, inprimakiak, garraio eta joan-etorrien gastuak, eskaerak egiten laguntzeko nahiz lankidetza osatzeko beharrezko diren lan eta baliabide guztiak.

✓ **ORDAINKETA MODUA ETA FAKTURAZIOA**

Fakturazioa: Faktura elektronikoa izango da. Jaulkiko da behin proiektu buruak hala eskatzen dioenean esleitua izango den enpresari (beti ere garatutako atala bete eta honi dagokion txostenaren oniritzia eman ondoren).

Oharra: Udal Elkarteak faktura elektronikoak jasoko ditu faktura elektronikoen Gipuzkoako sarrera-puntu orokorretik. Sarrera-puntu hori dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan.

Egoitza horretan bertan datoz sarrera-puntu orokorrari buruzko argibideak nahiz faktura elektronikoak egiteko programa doan jaitsi edo eskuratzeko esteka: https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua Fakturan honakoa jasoko da:

- Egitasmoaren izena: Proiektuaren izenburua
- Diru-laguntzaren erreferentzia: "Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Urola Kostako Udal Elkartearen arteko jasangarritasun energetikoaren arloan eskualdeko hitzarmenaren baitan".

Faktura oker balego, egin beharreko zuzenketak egin beharko dira (kontzeptuan, egindako lanen zerrendan, ordu kopuruan …) eta faktura-dokumentu berria aurkeztu beharko da. Oker dagoenaren faktura negatiboa aurkeztu beharko da kasu honetan.

Esleipendunak BEZa salbuetsita izango balu, hori adierazten duen agiria aurkeztu beharko du. Udal Elkarteak jasotzen dituen proposamenen eskaintza ekonomikoak alderatzeko oinarria erabiliko du (prezioa BEZik gabe).

Ordainketa:

1. SORTA: ENERGIA ALORREAN NAHIZ EKONOMIA ZIRKULARREAN, ZERBITZU SEKTOREARI NAHIZ INDUSTRIARI LOTURIKO AZTERKETA ETA NEURRI ZEHATZEN AHOLKULARITZA (gehienez, 23.966,94 € BEZ kanpo)

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Ordaintzeko modua: Kontratatutako ekimenen %50a gauzatutakoan, eta Udal Elkarteko proiektu arduradunak oniritzia eman ondoren, onartutako aurrekontuaren %50 fakturatuko da; gainontzekoa, amaieran, Udal Elkarteko proiektu buruaren oniritzia jaso eta gero, fakturatuko da.

2. SORTA: ESKUALDEKO ENERGIA ETA KLIMA MAHAIEN SORRERA ETA DINAMIZAZIOA (gehienez, 8.607,06 € BEZ kanpo)

   Ordaintzeko modua: Kontratatutako ekimenen %50a gauzatutakoan, eta Udal Elkarteko proiektu arduradunak oniritzia eman ondoren, onartutako aurrekontuaren %50 fakturatuko da; gainontzekoa, amaieran, Udal Elkarteko proiektu buruaren oniritzia jaso eta gero, fakturatuko da.

✓ **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK**

SORTA 1: ENERGIA ALORREAN NAHIZ EKONOMIA ZIRKULARREAN, UROLA KOSTAKO ZERBITZU SEKTOREARI NAHIZ INDUSTRIARI LOTURIKO AZTERKETA ETA NEURRI ZEHATZEN AHOLKULARITZA ZERBITZUA (gehienez, 23.966,94€ BEZ kanpo)

Dokumentuak	Formatua	Nola bidali	Hizkuntza
Zerbitzu sektoreko enpresen beharren txostena.	.pdf, .doc	Emailez	Euskara Gaztelera
Zerbitzu sektoreko enpresentzat neurri sorten definizioa eta banakako aholkularitzaren txostena.	.pdf, .doc	Emailez	Euskara Gaztelera
Industria sektoreko enpresen beharren txostena.	.pdf, .doc	Emailez	Euskara Gaztelera
Industria sektoreko enpresentzat neurri sorten definizioa eta banakako aholkularitzaren txostena.	.pdf, .doc	Emailez	Euskara Gaztelera
Enpresetako banakako aholkularitzaren aktak eta aurkeztutako materiala.	.pdf, .doc	Emailez	Euskara Gaztelera
Urteko edota amaierako memoria.	.pdf, .doc	Egoitza elektronikoaren bidez, amaieran.	Euskara Gaztelera
Fakturak	Elektronikoa	Elektronikoa	Euskara

Udal Elkartearekin harremanak bide elektronikoz gauzatuko dira, egoitza elektronikoa erabiliz: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/default.aspx?idayto=199&idioma=eu-ES

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

SORTA 2: ESKUALDEKO ENERGIA ETA KLIMA MAHAIEN SORRERA ETA DINAMIZAZIOA (gehienez, 8.607,06 € BEZ kanpo)

Dokumentuak	Formatua	Nola bidali	Hizkuntza
Ekimenetan erabilitako dokumentu edo txostenak.	.pdf, .doc	Emailez	Euskara Gaztelera
Mahaien bileren aktak.	.pdf, .doc	Emailez	Euskara Gaztelera
Amaierako memoria.	.pdf, .doc	Egoitza elektronikoaren bidez, amaieran.	Euskara Gaztelera
Fakturak.	Elektronikoa	Elektronikoa	Euskara

Udal Elkartearekin harremanak bide elektronikoz gauzatuko dira, egoitza elektronikoa erabiliz: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/default.aspx?idayto=199&idioma=eu-ES

✓ **HIZKUNTZA**

Udal Elkartearen hizkuntza politikak honetan datza: euskara da gure lan hizkuntza, ahozko eta idatziko barne komunikazioetan nahiz hornitzaileekin ditugun harremanetan. Herritar eta erabiltzaileei zerbitzua euskaraz nahiz gaztelaniaz eskaintzen diegu, hautatzen duten hizkuntzaren arabera.

Horrenbestez, enpresa esleipendunak Udal Elkartearekin izango dituen ahozko nahiz idatzizko komunikazioak euskaraz izango dira. Erabiltzaileekin izango diren harremanei dagokionean, erabiltzaileetara egokituko da erabili beharreko hizkuntza. Hori horrela izanik, egitasmoan zehar erabiltzaileei aurkeztu edo banatuko zaizkien dokumentu eta euskarriak euskaraz eta gaztelaniaz prestatu beharko dira; eta saioak antolatu beharko balira, hizkuntza udal elkarteak erabakiko du, inskripzioetan jasotako interesen arabera. Aldiz, beste eragileekin edota enpresekin nahiz banakako esku-hartzeetan, erabiltzaileek hautatutako hizkuntza erabiliko da ahozko zein idatzizko komunikazioetan; eta baita prestatu beharko diren txosten edo bestelako agirietan ere. Era berean, azterlanen eta aholkularitza-lanen ondoriozko txostenak bi hizkuntzatan egin beharko dira.

✓ **BERDINTASUNA**

Euskarri eta materialetan erabiliko diren testu eta irudietan genero-ikuspegia kontuan hartuko da; eta ondorioz, Udal Elkartearen oniritzia jaso beharko dute irudi nahiz erabilitako testuek.

✓ **KOORDINAZIOA ETA JARRAIPENA**

Kontratua Urola Kostako Udal Elkartearen zuzendaritza eta gainbegiratzearekin burutuko da. Udal Elkarteak kontratuaren objektua gauzatzeko behar diren mekanismo, jarraibide eta orientabideak emango dizkio enpresa esleipendunari. Horretarako, bere lantaldeko kide bat izendatuko du, Udal Elkartearen izenean proiektuaren ardura izango duena. Udal Elkarteak kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezko jotzen dituen jarraipen-bilera guztiak deituko ditu. Esleipenduna Udal Elkarteak deitzen dituen bilera guztietara bertaratuko da, koordinaziorako jarraipen-bilera arruntetara nahiz ezohiko bileretara.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

✓ **KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN BABESA**

Enpresa esleipendunaren betebeharra izango da parte hartzen duten enpresen eta pertsonen datuen gaineko sekretua zaintzea, datu horien izaera konfidentziala aintzat hartuta. Esleipendunak Udal Elkarteari eta eraginda ikusi diren enpresa edo eta pertsonei kalte-ordainak eman beharko dizkie isiltasun profesionala urratzeagatik sortutako kalteen truke, hala gertatuz gero.

Kontratua burutzeko izaera pertsonaleko datuak erabili behar baldin baditu, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araubidea beteko du esleipendunak. Horretarako, Udal Elkarteak eta esleipendunak izaera pertsonaleko datuak hirugarren baten bidez tratatzeko kontratua sinatuko dute. Kontratu hori administrazio-kontratuari atxikiko zaio, eranskin gisa.

EGINBIDEA.

Administrazio baldintzen orri hauek Urola Kostako Udal Elkarteko Lehendakaritzak onartu ditu, 2023ko martxoaren 15eko ebazpenaren bidez.

Sinatzailea	IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA Izaskun Altuna Mariezkurrena
Kodea	Z 23/0069
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/199/AAAA3K5MS.Q5WU
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu	